



ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO NEURRIAK DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen aniztasuna da hezkuntza-etapa honetan lanean diharduten irakasleen kezka nagusia. Aniztasun horren arrazoiak ugariak dira: desberdinak dira gaitasun pertsonalak, ikasteko estiloak, ikasteko motibazioak eta itxaropenak, integrazioa eskola-eremuan, erantzukizuna eskatutako ahaleginetan eta abar.

Aniztasunari eman behar zaion lehenengo erantzun garrantzitsuena ikasgela arruntean ematen saiatu behar dugu, alegia bertan biltzen diren elementu anitzez baliatuz:

- Gaien azalpenak ikasleen bakarkako nahiz taldeko lanarekin konbinatzea, irakaslearen orientabidea eta gainbegiraketa izanik.
- Ikasle bakoitzak egiten dituen jarduerak, horiek behin gainditu eta gero ondorengo mailakoei ekiteko, zailtasunaren arabera sekuentziatuta proposatzea.
- Taldeko jarduerak proposatzea, berdinen arteko ikaskuntza, norbere kasa egindako lanak edo proiektuak eta irakaslearen laguntza pertsonalizatua elkartuko dituztenak.
- Hezkuntza indartzeko (eta zabaltzeko) jardueren programazioan unitate didaktiko bakoitzari dagozkion funtsezko edukiak barne hartzea.
- Edukiek ikasleentzat esanahia eta, funtzionaltasuna izatea planteatutako lanetan, egoera desberdinetara aplikatuz.
- Ikasleak "erakarriko" dituzten baliabide didaktikoak barneratzea.
- Irakaslearen eta ikasleen artean nahiz taldea osatzen duten kide guztien artean errespetua, konfiantza eta erantzukizuna bultzatuko dituen giroa sortzea.
- Bakoitzak talde-lanean aritzeko dituen gaitasunak aprobetxatzea.
- Tutoreak ikasleen jarraipen individualizatua egitea (edo, gutxienez, arazo eta zailtasun handienak dituzten ikasle horiena).

Hobetzeko jarraibide hauetan aurrera egitea zeregin geldoa eta zaila da, batez ere asmoa bakarka ibiltzea baldin bada. Ikastetxearen barruan taldean lan egiteko gero eta behar handiagoa ikusten da bai eta ikastetxe desberdinen artean esperientziak eta baliabideak trukatzeko ere.

Eszenatoki onenetan ere arazoei, zailtasunei eta premiei erantzuteko neurri batzuk behar izango dira beti, hain zuzen ere ikasgela arruntean horiekin erantzutea edo eraginkortasunez erantzutea ezinezkoa denean.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak neurri batzuk diseinatu ditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskola-praktikan antzematen diren beharrak kontuan hartuta.